



JARDUNBIDE EGOKIEN 18. TOPAKETA : MOLDAKETA BIZKORRA ETA NEGOZIO-EREDU BERRIAK KRISI GLOBAL BATI AURRE EGITEKO

INSKRIPZIO FITXA

1. ERAKUNDEAREN AURKEZPENA

- ERAKUNDEAREN IZENA: Axular Lizeoa
- HARREMANETARAKO PERTSONA: Aitor Uriondo
- JARDUERA: Hezkuntza
- LANGILE KOPURUA: 60
- KUDEATU ETA BILATU:

2. PRAKTIKA ONAREN IZENA

MATRIKULA 2.0

COVID egoerak eraginda, 2021-2022 ikasturteari begira diseinatutako **MATRIKULA2.0** deitu dugun matrikulazio prozedura telematikoa bere osotasunean berrikuntza garrantzitsua izan dela iruditzen zaigu. Etorkizunari begira bide berri bat zabaldu zaigu aurrez ezagutzen genuen prozesua eraginkorragoa bihurtu dezakegula irakatsiz.


Gure ikastola kokatzen den ingurunean (Donostialdea Jaiotza-tasa oso baxua izanda) gure emaitzak aurtengoan ere bikainak izan dira ikastolak eskaintzen dituen **ikasketa-plaza guztiak %100an betez**. Horrekin batera, asko dira Axular Lizeoaren proiektuarekiko interesa erakutsi eta leku faltagatik beraien seme-alabak matrikulatu ezin izan dituzten familiak. Lorpen maila hau eguneroko lanaren ondorioa dela argi izanda, matrikulazio prozesua guztiz estrategikoa jotzen dugu, ikastolara iristen diren familiei begira baita ere gure ikastolatik kanpo geratzen diren familia horiei begira.

Nahiz eta gure erakundearen sartzeko lekurik ez izan eta bestelako ikastetxe batean beraien seme-alabak matrikulatu behar, gure profesionaltasunaz eta trataera egokiaz hitz egitea lortu nahi dugu. Gaur ez diren bezero horiek Axular Lizeoaren "influencer" edota "preskriptoreak" bihurtu nahi ditugu gure aldetik sentsibilizazio eta gizatasuna beraiekiko erakutsiz.

Horrela, MATRIKULA2.0 prozesua gure praktika ona bezala identifikatu dugu barne eta kanpo asetatsun maila bikaina izan eta etorkizunari begira "leiho-berritzailea" erakutsi digulako. COVID garaia baino lehen ez genuen zalantzan jartzen aurrez genuen prozedura. Ezta ere aldatu behar genuenik baina osasun-krisi honek eraginkortasunerantz bideratu gaituela iruditzen zaigu horren aurrean ausardiarekin eta berritzaileak izan daitezkeen proposamenak plazaratuz.

3. PRAKTIKA ONAREN DESKRIBAPENA

(Abiapuntua) COVID-ak sortutako egoerak eta aurrez, Erkidego guztian, bizi genuen jaiotza tasa jaitsiera eta krisiak inoiz baino zailagoa egiten zuen 2021-2022 ikasturterako matrikulazio prozesuari aurre egitea. Familia berriak urtetan egindako lanak erakarriko balitu ere, prozesu estrategikoa honetan berrikuntza eta saiakera berriak egitea ezinbestekotzat jo genuen, inguruko beste ikastetxeetatik bereizteko **AUKERA** handi bat ikusiz.



Horrela **MATRIKULA 2.0** prozedura honek hurrengo fasetan definitu genuen (mugarriak):


1. Pandemian zehar Estatu, Erkidego eta gure hiriko hedabide ezberdinetan irten eta **GIZARTEAN INPAKTU** ezberdinak lortu ditugu horrek **matrikulan eragina** izanez.
2. Ikastolako idazkaritzan jasotako familia berrien deiak telefonoz idazkaritzako lankideek bideratu izan zituzten aurrez landutako metodologia praktikan jarritz: **gidoi-sendo** eta bideratutakoaren erabilpena; bateratutako eta koordinatutako **estiloaren zainketa**; zabaldu beharreko **informazioa** bi hizkuntzetan eta **argitu beharreko zalantzak** definituak eta taldean partekatuak.
3. Guk sortutako matrikulazio eremu birtualera sarrera eman genien www.axular.org/matrikula gaur egun ikastolan ditugun 545 familiei bertan agertzen den informazioa zuzenetik ezagutu zezaten. **Kide-izate sentimendua** sortaraztearekin batera, **“gizarte hurbilean eragina”** ere lortu genuen familia hauek beraien inguruan zituzten bestelako Donostiar familia eta lagunei erakutsi baitzieten **inpaktu-erakargarria sortaraziz**.
4. Interesa erakutsitako familiei matrikulazio eremu birtual horretara sarrera ematearekin batera, bertan **galdetegi, inprimaki eta matrikula prozedurarekin aurrera jarraitzeko bestelako informazioa** eta dokumentazioa eskura jarri zitzaizen ibilbide birtual erraz eta intuitibo honen bitartez.
5. Ondoren, Zoom plataforma bitartez, ikastolako **Zuzendariarekin bilera telematikoa** aurrera eraman zuten ibilbide birtual osoa egin ondoren izan zitezketen zalantza eta bestelakoak argitzeko. Zalantzak Zuzendariak jasota zituen aurrez bidalitako galdetegi batean jasota baitzeuden. Modu honetan, zalantza horiek argitzeko informazioa, euskarri eta bestelakoak prestatzeko aukera emanez Zuzendariari.
6. Matrikula ofiziala gauzatzeko dokumentazioa fisikoki edota telematikoki idazkaritzan aurkeztu ondoren, fisikoki Plan Estrategikoa, Kooperatibaren estatutuak, Hezkuntza Proiektua eta bestelakoak eman zitzaizkien familia berriei eskura edota beraien etxetara korreoz bidaliz.
7. Ondorren, beraien beraien helbide elektronikora **gogobetetasun-inkesta** bidali zitzaizen ikastolarekiko espektatibak zeintzuk ziren eta hasierako matrikulazio prozesu honen asebetetze maila zein izan zen ere neurtuz.

Bitartekoak	Inbertsio ekonomikoa	Eskaintako denbora/pertsonak
Axular Lizeoko Ikasgela Birtuala: Aurrez, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetarako erabiltzen genuen gure ikasgela birtualean matrikulazio eremu honetan oinarritzea erabaki genuen. Funtzionalitate, itxura eta erabilgarritasun ikuspegitik behar genituen beharrei erantzuten zion. Beraz, inbertsio ekonomikorik ez	EZ	Webmasterraren 10 ordu
Grabaketarako bitartekoak	BAI 2.500€ Kamara ediziorako PC-a Argiak Mikroak	IKT teknikoa 10 ordu
Produkzioa	EZ	IKT teknikoa Zuzendaria – Aurkezle lana 20 ordu

Prozesu honek mehatxu eta kontutan izan beharrekoak ere erakutsi dizkigu:

Prozesuaren fase ezberdinak modu telematikoan bideratzeak gizatasuna eta kontaktu pertsonala galtzeko arriskua aurkeztu digu. Diagnostika argi izanda, behin familia berri hauen seme-alabak ikastolara hasita, talde-bilerak eta bilera pertsonalak ere errebisatu eta berrantolatu ditugu MATRIKULA2.0 prozesu horrekin koherentzia mantendu eta tratu-pertsonal hori ahalbideratu nahian.

Gure Kudeaketa aurreratu sistemaren elementu ezberdinei erantzun nahian, orain arte EMAITZAK baldin baziren beste elementuek hornitu behar zuten elementu nagusia, garai berri hauetan **PERTSONAK** inoiz baino gehiago **ERDIGUNEAN** jarri nahi ditugu gure erakundearen.



MATRIKULA2.0 deituriko praktika honen inguruan egindako lanketa, berrantolatutako prozedura eta diseinatutako eduki (bideo-dokumentazioa), plataforma digital (ikasgela birtuala) eta bertatik ateratako ikasketek, etorkizun hurbilerako ideia, proposamen eta ikusmira aldatzea suposatu digu. Horrela, datorren ikasturteari begira definitu eta identifikatutako aukerek bultzatuta, plataforman, eduki eta bestelakoetan doikuntza eta hobekuntza ezberdinak egingo ditugu. **HOBKUNTZA 2021-2022rako.**

4. EMAITZAK ETA ERAGINA


1. **MATRIKULA2.0 prozeduraren aurretik**, oso konsziente izanda jaiotza tasak, osasun egoerak, egoera ekonomikoak eta bestelakoek matrikulazio prozesu horretan eragin-negatibo zuzena izateko arriskua zegoela, COVID garaian **GIZARTEAN** izandako **ERAGINA** bisualizatzeko estrategia aplikatu genuen 2020ko martxoa eta 2020ko uztaila artean komunikazio hedabidetan gure lan edota proiektuei esker behin eta berriz agertuz. Horrek, gure gizarte-posizionamenduan ere emaitza ezin-hobeia izan duela adierazten digu guraso berri askok hedabide horietan emandako erreportaietan ikusi gaituztela onartu baitigute.




HEDABIDETAN PRESENTZIA 2020ko martxoa-uztaila artean

HEDABIDEA	KOPURUA	ZEINTZUK
TELEBISTA	6	ETB1 ETB2 TELECINCO TELEVISION ESPAÑOLA LA SEXTA ANTENA3
EGUNKARIAK	5	DIARIO VASCO EL PAIS NOTICIAS DE GIPUZKOA IRUTXULOKO HITZA GARA
IRRATIA	4	ONDA VASCA RADIO EUSKADI CADENA SER EUSKADI IRRATIA


2. Prozesu telematikoan zehar jasotako informazio estrategikoa JASO ETA AZTERTZEKO AUKERA:
 - 2.1. Asetasun maila.
 - 2.2. Axular Lizeoa aukeratu izatearen arrazoi nagusiak eta espektatibak.
 - 2.3. Eskaerak.



Balioetsi ikastola hobeto ezagutzeko ibilbide birtualean aurkeztu dizuegun informazioa



Aurrez zenituzten zalantzak argitzeko balio izan al dizue?



Emitza hauetatik kanpo beste 23 familia inguru daude lehendik ikastolan anai-arrebak dituztenak eta hauek aurrez informazio guztia jasota bestelako galdetegiak jasotzen baitituzte.

MATRIKULA2.0 jardunbide egokia bezala hartu dugu urtean zehar ditugun "prozesu klabeetako" bat izanda, egin ditugun doikuntza eta aldaerek eragin zuzena eta egokia izan duelako.

Gainera, beste hezkuntza erakunde ezberdinengan prozesu berritzaile honek interesa sortarazi du Axular Lizeoaren irudia ere modu egokian zabalduz. Benchmarking telematiko eta fisiko asko jasotzen ari gara Axular Lizeoan jardunbide egoki hau eta bestelakoak ikustera datozen beste ikastetxeen aldetik.